Irurako udala

ADMINISTRAZIO-BALDINTZA BEREZIEN AGIRIA
SAGASTI KALEA ERABERRITZEKO LANAK.

1. Kontratuaren xedea

Kontratuak obra hau egitea izango du helburu

SAGASTI KALEA ERABERRITZEKO LANAK

2. Kontratuaren bidez bete beharreko administrazio-premiak.

Obra-proiektuaren Memoriak justifikatzen du obra hau egiteak herri-intereseko premia bati erantzuten diola; hartu den konponbide teknikoaren egokiera ere jasotzen du.

3. Kontratuaren aurrekontua:

Kontratuaren esleipenerako aurrekontua hauxe da:

PRINTZIPALA:	112.385,53 €
BEZa, (% 21)	23.600,96 €
GUZTIRA	135.986,49 €

Bakarkako prezioak plegu teknikoetan jasota daude.
Egindako eskaintzan datorren baxa-portzentajea proiektuaren unitate bakoitzeko prezioei aplikatuko zaie, banan-banan. Egindako eskaintzaren baxa-portzentajea duten prezio horiek izango dira kontratua egitean erabiliko direnak.

Lizitatzaileek eskaintzen dituzten zenbatekoak inondik inora ere ezingo dira izan kontratuaren esleipenerako aurrekontutik gorakoak.
Prezio barruan sartzen dira, kontratuaren ondorioz sortzen diren gastu guztiak, tasa eta zergak, dietak, garraioa eta instalakuntza gastuak.

4. Kontratua banatzeko urteak

2022

5. Aurrekontuaren aplikazioa.

Partida:1 0000.601.153.20.01 (2022) Sagasti kaleko urbanizazioa eta proiektua.

6. Prezioak berraztertzea.

Kontratu honi ez dagokio prezio berrazterketarik.

7. Kontratuaren araubide juridikoa eta kontratu izaera duten agiriak.

Baldintza-orri honek xede duen kontratua administrazio-izaerakoa da eta azaroaren 8ko 9/2017 Legeak Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoak arautzen du; baita maiatzaren 8ko 817/2009 Errege Dekretuak –neurri batean, sektore publikoko kontratuei buruzko 30/2007 Legea garatzen duena- eta urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuz onetsi zen Administrazio Publikoen Kontratuen Legeko Erregelamendu Orokorrak ere (hemendik aurrera, APKLEO). Osagarri legez, administrazio zuzenbidearen gainerako arauak aplikatuko dira, eta, horrelakorik izan ezean, zuzenbide pribatukoak.

Obra hau, horretarako prestatutako dokumentazio teknikoaren arabera burutuko da, plegu honen zati izanik. Plegu hauek kontratu izaera izango dute.

Kontatuen Hiztegi Arruntaren CPV-KHA (Common Procurement Vocabulary - Vocabulario Común de Contratación Pública) nomenklaturari dagokin kodetzea.

45000000-7 Eraikuntza lanak.
45233340-4 - Espaloiak zimentatzeko lanak.
34928400-2 – Hiri-altzariak.

Kontratu hau lotuta dago:

a) Lan-arloan, gizarte-segurantzarenean eta laneko osasun- eta segurtasun-alorrean aplikatu behar diren lege-xedapen, arau eta hitzarmen guztiak betetzera.

b) Euskal Herriko Autonomia Estatutuaren 6. artikuluak ezarritako hizkuntza bien ofizialtasunaren araubidea betetzera, euskararen erabilera normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 oinarrizko Legeak arautua, baita azken lege hori garatzen duten araudiak ere eta plegu honi eransten zaion euskerazko betebeharren orria ere.

c) Halaber, baldintza-orri honetan zehazten diren izaera sozialeko betebeharrak betetzera.

8. Kontratua betetzeko epea.

Epe osoa: Kontratua betetzeko epea 3 **HILEKOA** izango da, zuinketa egiaztatzeko akta izenpetu eta hurrengo egunetik aurrera, zuinketa-aktan beste hasiera-egun bat finkatzen ez bada behintzat.

9. Adjudikatzeko prozedura:

Kontratu hau esleitzeko modua **laburtutako prozedura irekia** izango da 9/2017 legearen 159.1 artikuluan jasotzen den eran, lizitaziorako irizpide batzuk erabilita; hartara, interesa duten enpresaburu guztiek aurkez ditzakete proposamenak.

Eskaintzak baloratzeko eta eskaintza ekonomiko onena zein den zehazteko, kontuan hartuko dira eskaintza ekonomiko onuragarrienaren irizpidea eta kontratuaren xedeari zuzenean lotutako zenbait irizpide, ,. azaroaren 8ko 9/2017 Legeak onartutako Sektore Publikoko Kontratuen 159.4 artikuluaren arabera.

10. Exijitutako bermeak.
Behin behinekoa: Ez da beharrezkoa, sektore publikoko Kontratu legeko 159.4.b) artikuluaren arabera.
Behin betikoa: Kontratua eskuratzen duenak edo adjudikaziodunak, kontratuaren adjudikazio-zenbatekoaren % 5aren berme bat eskaini behar du, BEZa sartzeke.

11. Gaitasunari buruzko baldintzak.

Eskaintzak aurkeztu ahal ditzaketen bakarrak hauek dira: pertsona fisikoak edo juridikoak, espainiarrak zein atzerritarrak, jarduteko erabateko ahalmena dutenak; haien helburuek, xedeek edo jarduera-esparruek —beren estatutuen edo fundazio-arauen arabera— kontratu honen xedearekin lotura zuzena dutenak; Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legeko 71. artikuluak kontratatzeko ezartzen dituen debekuetako batean sartuta ez daudenak; eta kaudimen ekonomikoa, finantzarioa eta teknikoa orriotan adierazitako eran eta bertan adierazitako betekizunekin egiaztatzen dutenak.
Sektore publikoko kontratuen legeko 159. Artikuluaren 4. atalaren arabera, prozedura laburtuaren bidez izapidetutako lizitazioetara aurkezten direnak, Sektore Publikoko enpresa klasifikatuen Erregistro Ofizialean izena emanda egon behar dute eskaintzak aurkezteko azken egunean, edo,

hala badagokio, 96. artikuluaren 2. paragrafoan ezarritakoaren arabera, dagokion Autonomia Erkidegoko Erregistro Ofizialean, betiere lehia mugatzen ez bada. Ondorio horietarako, lizitatzailearen proposamena ere onargarritzat joko da, baldin eta egiaztatzen badu dagokion erregistroan inskribatzeko eskaera aurkeztu duela, horretarako behar den dokumentazioarekin batera, betiere eskaera hori eskaintzak aurkezteko azken eguna baino lehenagokoa bada. Inguruabar hori egiaztatzeko, dagokion erregistroak egindako eskaeraren hartu-agiria eta nahitaezko dokumentazioa aurkeztu izanaren eta zuzentzeko errekerimendurik jaso ez izanaren erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko dira.

12. Lizitazio iragarkia eta Proposamenak aurkezteko lekua.
Lizitazio hau, Udaletxeko kontratatzailearen profilean, http://www.irura.eus eta Euskadiko Kontratazio Plataformaren Kontratatzailearen profilean. Plegu eta dokumentazio osagarria eskuragarri izango da bertan.;
Proposamenak elektronikoki aurkeztuko dira. Lizitatzaileek, bere proposamenak Euskadiko Kontratazio plataformako aplikaziotik aurkeztuko dituzte, ondorengo helbidean:
www.contratación.euskadi.eus

Lizitazio elektronikorako baldintzak:

1. Baldintza administratiboak:
a)Euskadiko Administrazioak baimendutako ziurtagiri digital bat izatea. Ondorengoak dira:
- Izenpe (Erakundea, herritarra, Erakundearen ordezkaria)
-FNMT (Erakundea, herritarra, Erakundearen ordezkaria)
- Dni-e
- Camerfirma (Erakundea, Herritarra)

2. Baldintza teknikoak:
Baldintza teknikoei buruzko informazioa esteka honetan aurkitzen da:
https://apps.euskadi.eus/w32-content/es/contenidos/informacion/licitar_ electronicamente/es_ 02/cambios_ configuracion.html

13. Proposamenak egiteko modua.

Proposamenak elektronikoki bakarrik aurkeztu ahal izango dira.

Lizitatzaileek proposamen bat bakarrik aurkeztu ahal izango dute.

Eskaintzak artxibo bakar batean aurkeztuko dira.

A ARTXIBOA: DEUC ETA FORMULA BITARTEZ KALKULUETAN OINARRITUTAKO ESKAINTZA

1.Europako Kontratazio Agiri Bakarra (EKAB). Administrazioarekin kontratatzeko legez ezarritako baldintzak bete egiten dituela adierazten duena: Kasu horretan, adjudikazio-proposamena egokitu zaion lizitatzaileak, kontratuaren adjudikazioa egin aurretik, baldintza-orri honetan exijitu zaizkion dokumentuak badituela eta baliokoak direla egiaztatu beharko du kontratazio-organoaren aurrean. ARDURAPEKO AITORPENAk, lizitatzaileak esleipena jaso ezkero, kontratuaren xede den jardueran arituko diren langileei aplikatuko zaien hitzarmen kolektiboa zein den adierazi beharko du apirilaren 7ko 3/2016 Legearen 5.2 artikuluak eskatu bezala –zenbait klausula sozial kontratazio publikoan sartzeko Legea, EHAAren 71. zki., 2015eko apirilaren 15ekoa–.

Edozein kasutan ere, prozedura ondo bideratuko dela bermatzeko, adjudikazio-proposamena egin baino lehen, kontratazio-organoak edozein unetan eska dezake lizitatzaileek kontratuaren

adjudikaziodun izateko ezarritako baldintzak bete egiten dituztela egiaztatuko lukeen dokumentazioa.

Administrazioarekin kontratatzeko exijitzen diren gaitasun eta kaudimen baldintzak bete egiten direla ikusteko memento erabakigarria proposamenak aurkezteko epearen amaiera izango da.

Hala badagokio, aldi baterako enpresa-elkarte (ABEE) bat eratzeko konpromisoa jasotzen duen dokumentua edo agiria: enpresaburuek, enpresa-elkarte batean aurkezten badira, gainera, kontratua adjudikatuz gero elkartea osatzeko konpromisoa aurkeztu behar dute agiri batean. Agiri hori enpresa bakoitzetik ordezkari banak izenpetu beharko du. Bertan, azaldu behar dute nor izendatzen duten aldi baterako enpresa-elkartearen ordezkari administrazioari begira, kontratuari buruzko kontu guztietarako, eta baita bakoitzak enpresa-elkartean duen partaidetza ere.

2. ESKAINTZA EKONOMIKOA

Proposamen bat. Proposamena baldintza orri honi erantsi zaion **I. ERANSKINA** ereduaren arabera aurkeztuko da.

14. Proposamenak aurkezteko epea eta proposamenek bete beharreko gainerako eskakizunak.

Eskaintzak **HOGEI EGUN NATURALEKO EPEAN** aurkeztuko dira, lizitazio-iragarkia kontratazio profilean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera kontatuta.

Administrazio-klausula berezien baldintza-orrian xedatutakoari egokitu beharko zaizkio interesdunen proposamenak, eta haiek aurkezteak esan gura du enpresaburuak baldintzarik gabe onartzen duela klausula horien guztien edukia eta, orobat, proiektua eta agindu teknikoen baldintza-orria, inolako salbuespen edo erreserba barik.

Proposamenak isilpekoak izango dira eta hori bermatzeko behar diren bitartekoak ezarriko dira, harik eta proposamenok jendaurrean ireki arte.

Lizitatzaileak ezingo du aurkeztu proposamen bat baino gehiago.

Era berean, ezin izango du aldi baterako enpresa-elkarte baten bidez eskaintzarik egin, baldin eta bakarka ere aurkeztu badu edo aldi baterako enpresa-elkarte batean baino gehiagotan aurkeztu badu. Arau hauek betetzen ez badira, eskaintzaileak egindako eskaintza bat bera ere ez da onartuko

15. Kontratua adjudikatzeko irizpideak.
A. IRIZPIDE OBJETIBOAK.
Honako irizpide hauek baloratuta adjudikatuko da kontratua:

Proposamen bat. Proposamena baldintza orri honi erantsi zaion **I. ERANSKINA** ereduaren arabera aurkeztuko da.
Gehienezko puntuazioa: 100 puntu

PROPOSAMEN EKONOMIKOA

Gehienezko puntuazioa 60 puntu

Puntuaziorik handiena emango zaio prezio merkeena eskaintzen duen proposamenari eta gainontzeko proposamenen puntuazioa ateratzen da gehiengo puntuazioari formula honetatik

ateratzen dena: prezio merkeena duen eskaintzaren eta baloratzen den lizitatzailearen eskaintzaren arteko zatidura bider irizpideari aplikatu dakizkiokeen puntuen kopuru osoa, ateratzen den emaitza. Hau da,

Pl=(Ob/Ol)x60

Non eta:
Pl: lizitatzailearen puntuazioa
Ob: eskaintzarik txikiena
Ol: lizitatzailearen eskaintza
-Eskaintzak neurriz kanpokoak direla, edo balore anormalak dituztela ebazteko, aztertu egingo da lizitatzailea ondorengo kasu hauetakoren batean sartzen ote den, herri Administrazioetako kontratuen legearen Erregelamendu Orokorrak 85. Artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz:
Lizitatzaile bakarra badago eta lizitazioaren oinarrizko aurrekontua baino txikiagoa bada, ehuneko 25 unitate baino gehiagotan.
- Bi lizitatzaile daudenean, beste eskaintzan baino 20 portzentaje-unitate baino gutxiago dituztenak.
- Hiru lizitatzaile daudenean, aurkeztutako eskaintzen batez besteko aritmetikoa baino 10 unitate gutxiago dituztenak. Hala ere, batez besteko hori zenbatzeko, alde batera utziko da zenbateko handiena duen eskaintza, batez besteko hori baino ehuneko 10 unitate baino gehiagokoa denean. Nolanahi ere, portzentajezko 25 unitatetik gorako baja neurriz kanpokotzat joko da.

BERME-EPEA LUZATZEA.

Gehienezko puntuazioa: 0 puntu

Instalazioen bermearen luzapena: 40 puntu

10 puntu esleituko dira urtebeteko berme luzapenagatik.

Epea urteetan adieraziko da.

16. Gardentasun instituzionala.

Lizitazio honetan parte hartzeagatik soilik, parte-hartzaile guztiek onartzen dute gardentasun instituzionala ematea kontratuaren lizitazio-, adjudikazio- eta exekuzio-prozesuen ondorioz sortutako datu guztiei, harik eta lizitazioa amaitu arte.

Enpresarioek egin dezaketen konfidentzialtasun deklarazioak ondoko erregela hauek bete beharko ditu:

a) Ezingo da egin konfidentzialtasuneko deklarazio orokorrik; eta ezta onargarria izango aurkeztu diren dokumentu guztiak edo informazio guztia konfidentzialtasun izaerakotzat deklaratzea.

b) Espezifikatu egin beharko da, berariaz eta zehatz, 2. kartazal barruan dagoen dokumentazioaren lehenengo orrian zehaztu ere, aurkeztutakoetatik zein dokumentu diren konfidentzialtasun izaera hori dutenak.

c) Adierazi egin behar dira konfidentzialtasun deklarazio hori zein inguruabarretan oinarritzen den. Hona hemen:

- Sekretu industrialak, teknikoak edo merkataritzakoak izatea.

- Merkataritza interes legitimoak.

- Jabetza intelektualaren eskubidea

- Enpresen arteko lehia leialari eragin ahal diezaioketen inguruabarrak.

- Enpresarentzat balio handia duen informazioa edo garrantzizko aktiboa dena, ikerketan egindako inbertsioen ondoriozkoa delako, esperientziak ematen duen ezagutzatik datorrelako edo gainerako hautagai edo lizitatzaileen aurrean balio estrategiko berezia duelako, edo enpresa-kudeaketa egiteko modu jakin bat adierazten duelako.

Edozein modutan ere, informazio jakin bat konfidentzialtzat hartu eta babestu nahi izateak ezin ditu utzi edukirik gabe publizitate eta gardentasun printzipioak.

Horrela, enpresarioak bere proposamenean konfidentzialtzat deklaratu duen informazio jakin bat beste norbaitek eskuratu nahi izango balu, enpresarioari posta elektronikoz bidaliko zaio eskaera, informazio hori emateak bere merkataritza interes legitimoei kalte egin diezaiokeen ala ez hiru laneguneko epean adieraz dezan, hori dena arrazoituta. Eskatu diren datuei buruzko inguruabar horiek ziurtatzen ez badira, datu horiek ez dira konfidentzialtzat hartuko.

17. Dokumentazioa eta proposamenak zabaltzea.

a) Kontratazio-mahaiak, A ARTXIBOA zabaltzeko ekitaldi publikoan, hauxe egiaztatuko du: lizitatzaileek aurkeztu dituzten ardurapeko adierazpenak behar den bezala izenpetuta daudela eta, formaren aldetik eta ikuspegi materialetik ere, bete egiten dutela legez eta erregelamenduz aplikatzekoak diren arauek eskatutakoa. Aurkeztutako erantzukizunpeko aitorpen horietan konpon daitekeen akatsen bat ikusiko balitz, lizitatzaileei hiru eguneko epea emango zaie kontratazio-mahaiaren aurrean akats hori konpon dezaten.

Egindako eskaintzak heinik gabekoak edo ausarkeriazkoak badira, 9/2017 Kontratazio legearen 149. artikuluak ezarritakoaren arabera jokatuko da.

Kontratazio mahai era honetan osaturik egongo da:
Lehendakaria: Mikel Iturbe (Hirigintza batzordeko burua)

Bokalak:
- Iñaki Arregi Garitano (Udaleko Arkitekto teknikoa)
- Irantzu Arrizabalaga Gainza (idazkari-kontuhartzailea)

Idazkaria:

- Cristina Fernandez Izaguirre (Administarien eskala karrerako funtzionarioa)

Kontratazio mahaik aurkeztutako proposamenak baloratzeko udalak kanpoko enpresetara jo ahal izango du, aurkeztutako eskaintzak ezarritako baldintzak betetzen dituela ziurtatzeko eta ezarritako irizpideei buruzko balorazioak egiteko.

Irurako Udalaren Kontratatzailearen profilean argitaratuko dira Kontratazio Mahaiaren akta guztia.

Esleipenerako irizpideak aplikatu ondoren, puntuazio **berdinketa sortzen bada**, hurrengo irizpide sozialak, aplikatuz ebatsiko da, hurrengo hurrenkeran:

Lehengoa: Langileen artean, emakume portzentaje handiena duen enpresa.

Bigarren aldiz puntuazio berdinketa agertzen bada: Desgaitasuna duten edo sozialki baztertuta aurkitzen diren langileen portzentaje altuena duten enpresak. Berdinak izango balira, desgaitasuna duten langile finkoen kopurua hartuko lirateke kontutan.

Hirugarren aldiz puntuazio berdinketa agertzen bada: Aldi baterako kontratu portzentaje txikiena duen enpresa.

Laugarren aldiz puntuazio berdinketa agertzen bada: Zozketa.

18. Kontratua esleitzea eta formalizatzea:

18.1. Esleipena.

Kontratazio mahaiaren akta jaso ondoren, kontratazio-organoak proposamenak sailkatuko ditu eta eskaintza ekonomiko onuradunena egin duen lizitatzaileari eskatuko dio azpian adierazitako dokumentazio justifikatzailea aurkez dezala **7 laneguneko epean**, hori egiteko agindua jaso duen egunaren biharamunetik aurrera zenbatzen hasita:

Nortasun juridikoa egiaztatzeko dokumentuak:

Norbanako enpresariek: NANaren kopia ekarri behar dute. Pertsona juridiko diren enpresariek: eskritura edo erakundearen edo entitatearen eraketa jasotzen duen dokumentua eta hura eratzen duten Estatutuak; azken horiek, Merkataritza Erregistroan edo dagokion erregistroan behar bezala inskribatuak.

b) Espainiarrak ez diren enpresek, Europar Batasuneko kide diren edo Europako Esparru Ekonomikoari buruzko Akordioa izenpetu duten estatuetakoek, jarduteko gaitasuna egiaztatu behar dute Administrazio Publikoen Kontratuen Legearen (APKL) Erregelamendu Orokorreko I. Eranskinean adierazten diren erregistroetako batean inskribatuta daudela dioen ziurtagiria edo zinpeko deklarazioa aurkeztuta.

c) Atzerriko gainerako enpresariek beren jarduteko gaitasuna egiaztatu beharko dute dagokion Estatuko ordezkaritza diplomatiko espainiarrak emandako txosten bidez, non eta agerraraziko baita tokiko, lanbideko, merkataritzako edo antzeko Erregistroan inskribatuta ageri direla, edo, halakorik ezean, tokiko trafikoan ohikotasunez jarduten dutela, kontratuaren xedea edo objektua eratzen duten jardueren alorrean.

Halaber, dagokion espainiar ordezkaritza diplomatiko iraunkorraren txostena eman beharko dute hauxe esaten: beren jatorriko Estatuak, bere aldetik, onartu egiten duela espainiar enpresek Administrazioarekin kontratuak egitea, funtsean antzekoa den moduan.

2) Ordezkaritza egiaztatzeko dokumentuak: Proposamenak ez badu lizitatzaileen izenperik, eskaintza izenpetu duenaren edo izenpetzen dutenen alde luzatutako ahalordea sartu behar da, ahaldunen Nortasun Agiri Nazionalaren kopia eskuetsiarekin batera.

3) Zerga-betebeharretan egunean dagoela dioen ziurtagiri frogagarria.

4) Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean dituela dioen ziurtagiri frogagarria.

Espainian egoitza fiskalik ez duten atzerritarrek —pertsona fisikoak zein juridikoak—, Europar Batasuneko estatu-kide batekoak izan edo ez izan arren, beren jatorrizko herrialdeko aginpide eskudun batek emandako ziurtagiria aurkeztu beharko dute, dagozkien zerga-obligazioak egunean dituztela adieraziko duen ziurtagiria. Era berean, ziurtagiria aurkeztu beharko dute –hori ere horretarako eskumena duen agintaritzak luzatua- beren jatorriko herrialdean exijitzen diren gizarte-obligazioak egunean dituztela egiaztatzen. Atal honetan aipatu den dokumentazio guztia azken hamabi hilabete hauetakoa izan beharko da.

5) Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren alta, jardunaldi honetakoa, edo bestela, azkeneko erreziboa, zerga horren matrikulan ez duela bajarik eman dioen ardurapeko deklarazio batekin osatua. Zerga ordaindu beharrik izan ezean, horren inguruko ziurtagiri egiaztatzailea, horretan eskumena duen Administrazioak luzatutakoa.

6) Behin-betiko bermea eratu izanaren egiaztagiria, adjudikazio-kopuruaren % 5a (BEZik gabe).

7) Ondorengo aseguru hauek egin izanari buruzko egiaztagiria. Aseguruok adjudikaziodunaren kontu mantenduko dira eraikuntza-aldian eta kontratuaren berme-aldian.

7.1. ERANTZUKIZUN ZIBILEKO ASEGURUA; ustiapenekoa, patronalekoa, gurutzatua eta amaitutako lanena. Mañariko Udalak aseguratu gehigarriaren izaera izango du, baina hala ere ez du galduko hirugarrenen izaera hori.

Edozein kasutan ere, frankiziari dagokion zenbatekoaren kalte-galerak adjudikaziodunak berak jasango ditu, nola kalte-galerok aseguru-poliza guztietan ezar daitezkeen mugak gainditzen dituzten guztietan, hala aseguru-poliza horiek estaltzen ez dituzten ondasunetan eta arriskuetan.

Obrak amaitzeko aurreikusitako epean berandutzarik balego, amaitzeko behar diren luzapenak kontratatuko dira, baina adjudikaziodunak legokiokeen gain-prima ordaindu beharko du.

8.2. ERAIKUNTZAKO ARRISKU OROTAKO ASEGURUA, kontratista, azpikontratistak eta obran esku hartzen duen edonor aseguratuko duena. Aseguru horrek egindako obrak eta egiten ari direnak jasan ditzaketen kalteak hartuko ditu bere gain, ondoko estaldurak barne.

1. Ondoko arrisku hauetatik sortutako kalte guztiak hartuko ditu: suteak, tximistak, leherketak, lapurretak, espoliazioak, inpaktuak, esperientzia ezaren ondoriozkoak, zabarkeriatik datozenak, ekintza basatiak eta asmo txarrez egindakoak, natura-arriskuak edo/eta aipatu ez den beste edozein arriskutatik sortutakoak.

2. Berme-osagarriak ondokoengatik:

- Diseinu-akatsa, fabrikantearen arriskua.
- Gastuak aparteko orduak sartzeagatik, eskonbroak kendu edo ateratzeagatik, eraispenak, aginpideak hartutako neurrien ondorioz sortutako gastuak...
- Aurretik zeuden ondasunei egindako kalteak.
- Greba, matxinada eta terrorismoa.

Asegurupean geratuko dira jatorriz eraikuntza-aldikoa den arrazoiren batetik sortutako galera edo kalte guztiak; baita eraikuntzaren aldi horretan edo aldi horren ondoren sortzen diren guztiak ere, azken horiek obra-kontratuan ezarritako obligazioak zuzen betetzeko asmoz burutu diren lanak egitearen ondoriozkoak.

Aseguratutako zenbatekoa obrak duen balio berdinekoa izango da. Irurako Udala, aseguratu gehigarri moduan sartu behar da aseguruan.

Oharra: Aseguruak egin edo izenpetu izanari buruzko egiaztagiriak aurkeztu ezean, adjudikaziodunak idatzi bat aurkez dezake, aseguruak obraren zuinketa egiaztatzeko jarritako egunaren aurretik izenpetuko dituela idatziz hitz emanda.

Aseguruak mantendu egingo dira eraikuntza-aldian eta kontratuaren berme-aldian.

1. OHARRA: **Kontratisten Erregistro Ofizialean** inskribatuta egonez gero –**Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Administrazio Publikoko** Sailaren 1 Dekretuz erregulatutako erregistroa- ez dira aurkeztu behar aurreko 1, 2, 3, 4 eta 5 zenbakietako ataletan aipatu diren dokumentuak.

Aurkeztu beharko diren dokumentuak hauexek dira:

a) Erregistroan inskripzioari dagokion ziurtagiria, indarrean dagoena.

b) Enpresaren erantzukizuneko aitorpena, ziurtagirian islatu diren inguruabar horiek ez dutela aldaketarik izan adierazten.

Agiriren bat falta baldin bada, organu kontratatzaileak 3 eguneko epea emango die lizitatzaileei , akatsa konpontzeko eskakizuna egiten denetik hurrengo egunetik kontatzen hasita, horiek era egokian aurkezteko.

Emandako agindua ez bada behar bezala betetzen adierazitako epe horren barruan, lizitatzaileak berak egin duen eskaintzari uko egin diola uste izango da eta, kasu horretan, eskaintzen sailkapenean ondoren datorren lizitatzaileari eskatuko zaio aurrekoari eskatutako dokumentazio berbera.

Kontratazio-organoak, dokumentazioa jaso eta hurrengo BOST lanegunen barruan adjudikatuko du kontratua.

18.2. Formalizazioa.

Kontratua dokumentu administratibo batean formalizatuta gauzatuko da, 9/2017 Kontratazio legearen 153. Artikuluan jasotzen den eran, 15 egun balioduneko epean.

Obrak Aldi Baterako Enpresen Batasun bati esleituko balitzaizkio, enpresok batasun hori eratu dutela egiaztatu beharko dute, eskritura publikoan, kontratua formalizatzeko epearen barruan eta batasunari emandako IFZan.

18.3. Kontratatzailearen profila.

Kontratazio-organoaren kontratatzailearen profilean argitaratuko da kontratuaren adjudikazioa, baita bere kontratu-jardunari buruzko beste edozein datu edo informazio ere 9/2017 Kontratuen legearen 154. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Kontratatzailearen profilean argitaratuko da baita kontratuaren formalizazioa edo gauzapena.

Irurako Udaleko kontratatzailearen profilaren sarbidea web honetatik: www.irura.eus

19. Obra-zuzendaritza eta obraren ordezkaria.

Kontratazio-organoak izendatuko duen obra-zuzendariak hartuko ditu bere gain kontratatuko obra zuzen burutzeko bete behar diren zuzendaritza, ikuskaritza, egiaztapen eta zaintza zereginak. Obra-zuzendariari kontratazio-organoak izendatzen duen pertsonalak lagun diezaioke.

Kontratistaren obra-ordezkaria teknikari titulatu bat izango da, kontratu honen xede diren obren antzeko obretan esperientzia egiaztatua duena.

20. Zuinketaren egiaztapena eta lanen programa.

Kontratua formalizatzen den egunetik zenbatzen hasita gehien jota hamabost eguneko epean, zuinketa egin behar da eta horri dagokion akta jaso.

21. Kontratistaren izaera espezifikoko beste obligazio batzuk eta galda daitezkeen gastuak.

Kontratistak, derrigorrez eta eskura, obran bertan eduki behar du "Agindu Liburua". Liburu hori obraren zuzendari teknikoaren esku egongo da, eta bertan jaso beharko ditu obrak egiten direnean dauden bisitak, sortzen diren ezbeharrak edo gorabeherak eta han ematen diren aginduak. Kontratista derrigortuta dago, bai bera edo bere ordezkaria, agindu edo jarraibide horien hartu-agiria sinatzera.

Obraren onarpena egiten denean, “Agindu Liburua” behar bezala beteta aurkeztea eskatuko da. Onarpena egin ondoren, liburu hori Udalaren eskuetan geratuko da.

Baldintza Teknikoen Orrian aurreikusitako saiakuntza eta azterketen kaltetan gabe –baldintzon edukiak dioena bete behar da- obra-zuzendariak obra-unitateen eta materialen probak edo azterketak egiteko agindua eman dezake, eta kasu bakoitzean bidezkoak diren txosten zehatzak edo espezifikoak egitea eskatu ere bai. Hori dena kontratistaren kargu geratuko da.

Kontratistaren kontu eta haren kargu geratuko dira gestioak egitea, gastu guztiak, tasak, arielak eta abarrak ordaintzea. Hari dagokio baita eskumena duten erakundeetan aurkeztu behar diren proiektuak erredaktatzea eta onartzea alta jasotzeko eta funtzionamendu-baimena eskuratzeko, sareetara eta zerbitzuetara lotzeko, behin betiko hartuneak eta aldi baterakoak egiteko eta, oro har, instalazioen funtzionamendua egokia eta legezkoa izateko egin behar diren gauza guztiak egiteko.

Kontratista derrigortuta dago obraren sarbidea eta lanak egiterakoan hartuko den alde horretako zirkulazioa zein den adierazteko ipini behar diren seinaleak jartzera, baita obrak egiten direnean egon daitezkeen arrisku-puntuak seinalatzera ere, bai obrak egiten ari diren alde hartan bertan eta baita haren inguruetan edo mugetan ere.

Era berean, obrak egiten hasten direnetik, adjudikaziodunak, obrak identifikatzen dituen seinaleetan kartelak ipini beharko ditu, udalak finkatutako ezaugarriekin obrak identifikatuko dituztenak.

Kontratista derrigortuta dago ez bakarrik obrak egitera, baita obrak zaintzera ere obren-onarpena eman arte. Bestalde, harik eta obren onarpena egin arte, adjudikazioduna izango da lurzoruak eta han dauden ondasunak zainduko dituena.

Kontratistak eraikuntzaren oinarrizko arauak gorde beharko ditu, baita derrigorrez bete beharreko gainerako erregelamendu teknikoak ere.

Halaber, kontratistak derrigorrean gorde beharko du isilpean eskuratu duen edo esleitu zaion kontratuaren edukia.

22. Laneko segurtasun eta osasun Plana

Kontratua formalizatu denetik hile bateko epean “Laneko segurtasun eta osasun Plana” aurkeztuko dio kontratazio-organoari; bost eguneko epean jasoko du Planari dagokion onespenaren edo onespen ezaren inguruko txostena.

Kontratistak aurreko paragrafo horretan adierazitako epeak betetzen ez dituela-eta, obrak egiten hasteko baimena eman eta obrak egiten hasteko modurik ez balego, hark ezingo du inongo luzapenik eskatu.

23. Epeak.

Adjudikazioduna derrigortuta dago kontratua egiteko finkatu den epe oso hori betetzera, eta hala bada kasua baita ezarritako epe partzialak ere. Adjudikaziodunarentzat, epe horiek zuinketa-egiaztatzeko akta izenpetu eta hurrengo egunetik aurrera hasiko dira zenbatzen.

24. Ordainketa-araubidea.

Zerbitzuaren prezioa ordainduko da, enpresak dagozkion lanen ziurtagiria eta faktura elektronikoa aurkeztu ondoren. Faktura hori dagokion Saileko teknikari arduradunak

gainbegiratuko du, eta, hala badagokio, organo eskudunak onartuko du.

Baldin eta Udalak eskatzen badu, ekarritako faktura horiekin batera Gizarte-segurantzaren kotizazioko dokumentuak ekarri behar dira; obretan ibili diren langileena edo pertsonena, alegia.

25. Kontratua betetzeko baldintza bereziak.

KONTRATUA BETETZEKO BALDINTZA BEREZIAK LAN ARLOAN, GIZARTE SEGURANTZAREN ARLOAN ETA LANEKO SEGURTASUNAREN ETA OSASUNAREN ARLOAN:

Enpresa kontratugileak langileen soldata kondizioak bete beharko ditu, aplikazio sektoreko Langileen Hitzarmenaren arabera(Gipuzkoako Eraikuntza eta obra publikoen Hitzarmena).

Enpresa kontratistak lan-arloan, Gizarte Segurantzan eta laneko segurtasun eta osasunean indarrean dauden legezko, erregelamenduzko eta hitzarmenezko xedapen guztiak bete beharko ditu; bereziki, kontratuaren esleipendunak, indarrean dagoen bitartean, langileekiko eta Gizarte Segurantzarekiko soldata-betebeharrak egunean izan beharko ditu.

Horrez gain, enpresa kontratistak Gipuzkoako eraikuntza sektoreko sindikatu handienetako ordezkariei obretara sartzen utzi beharko die, hartara lan arriskuen prebentzioari buruzko araudia eta lan baldintzei buruzko araudia betetzen dela ikuska dezaten.

Ez-betetze arinak izango dira hauek:

a) Langileari idatziz ez jakinaraztea kontratuaren funtsezko osagaiak eta lan-prestazioa betetzeko baldintza nagusiak, dagokion araudiak ezarritako moduan eta epeetan.

b) Lan istripuen eta deklaratutako laneko gaixotasunen berri ez ematea lan agintaritza eskudunari garaiz eta dagokion moduen, istripu edo gaixotasun horiek arintzat jotzen direnean.

c) Aldi baterako ezintasunen baja, baja-berrespenari edo altari buruzko agiri medikuen kopiak ez bidaltzea dagokion entitateari.

d) Betebehar formal soilei edo agirizkoei eragiten dien gainerako ez betetzeak.

Ez-betetze astunak izango dira:

a) Lan kontratua idatziz ez formalizatzea, betekizun hori legez bete beharrekoa denean edo langileak eskatu duenean.

b) Kontratu motei, iraunaldi zehatzeko kontratuei eta aldi baterako kontratuei buruzko araudia urratzea, kontratu mota ezberdinak lege-iruzurrez erabilita.

c) Lanaldi, gaueko lan, aparteko ordu, ordu osagarri, atsedenaldi, opor eta baimenei buruzko arauak eta legezko nahiz hitzartutako mugak ez betetzea.

d) Enpresak bere kasa funtsezko lan baldintzen aldaketa inposizioa, legez ezarritako prozedurak jarraitu gabe.

e) Legez edo hitzarmen kolektiboz ezarritako lan-baldintzak baino txarragoak ezartzea, eta, orobat, Langileen Estatutuaren Legearen 4. artikuluak langileei aitortzen dizkien eskubideen kontrako egintzak nahiz ez-egiteak egitea, oso larritzat jo ez badira.

f) Laneko segurtasun- eta osasun-plana ez egitea lan arriskuen prebentzioari buruzko araudiak ezarritako edukiarekin, bereziki ez denean jaso obrako langileen segurtasunari eta osasunari eragiten dieten berariazko arriskuei moldatutako eduki erreal eta egokia, edo ez denean plana egokitu lanpostuei eragiten dieten jarduera, prozedura edo ingurunearen ezaugarri berezi horietara.

g) Laneko segurtasun- eta osasun-planaren jarraipena egiteko betebeharra ez betetzea, laneko arriskuen prebentzioari buruzko araudiak ezarritako modu eta edukiarekin.

h) Indarrean dagoen araudiaren araberako azterketa medikuak eta langileen osasun-egoera aztertzeko aldizkako zainketa-probak ez egitea, edo haien emaitzen berri dagokien langileei ez ematea.

i) Langileak euren ezaugarri pertsonal ezagunekin bateraezinak diren lanpostuetara atxikitzea, ez-betetzea oso larritzat jotzen denean izan ezik.

j) Lan istripuen eta deklaratutako lanbide-gaixotasunen berri garaiz eta forma egokian ez ematea lan-agintaritzari, indarrean dauden xedapenen arabera, istripu edo gaixotasun horiek larri, oso larri edo hilgarri kalifikazioa dutenean, edo ikerketarik ez burutzea langileen osasunari kalterik eragin zaionean edo prebentzio-neurriak nahikoak ez direla susmatzeko zantzuak daudenean.

k) Lan-arriskuen prebentzioari buruzko araudia ez betetzea, ez-betetzea arintzat edo oso larritzat jo denean izanik ezik.

l) Lantokiren edo langunearen garbitasun eza, ohikoa denean edo langileen osotasun fisikorako eta osasunerako arriskurik dakarrenean.

m) Bizkaiko eraikuntza sektoreko erakunde sindikal handienetako ordezkariak edo langileen ordezkariak araudiaren arabera ez informatzea edo obrara sartzen ez uztea, lan arloko, gizarte segurantza arloko eta laneko segurtasun eta osasun arloko araudia betetzen den egiaztatzeko euren zeregina oztopatuz.

n) Langile berrien hasierako afiliazioa edo alta ez eskatzea, edo epez kanpo eskatzea, ikuskapen-jarduera baten ondorioz. Kasu horretan dagoen langile bakoitzeko ez-betetze bat eman dela ulertuko da.

o) Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak kontzeptu guztiengatik biltzen dituen kuotak dagokion moduan eta epeetan ez ordaintzea, edo dagokion diru-sarrera behar den zenbatekoan ez egitea, kotizazio-agiriak aurkeztuta, betiere diru-sarrera ez egitearen arrazoia enpresaren konkurtso-deklarazioa ez bada, edo ezinbesteko kasua, edo ez bada eskatu kuotak ordaintzeko epearen atzerapena inspekzio-jarduna hasi aurretik, ezezko ebazpenik ez bada eman.

p) Hirugarren ez-betetze arina.

Ez-betetze oso astunak izango dira:

a) Langileari zor zaion soldata ez ordaintzea edo ordainketa atzeratzea behin eta berriro.

b) Enpresak bere kasa hartzen dituen eta diskriminazio zuzena nahiz zeharkakoa eragiten duten erabakiak: adina edo desgaitasuna dela-eta aldeko eta aurkako diskriminazioa eragiten dutenak; ordainsari, lanaldi, prestakuntza eta gainerako lan-baldintzak direla-eta aldeko edo aurkako diskriminazioa eragiten dutenak; eta jatorria, arraza edo etnia barne, egoera zibila, gizarte maila, erlijio edo sinesteak, ideia politikoak, sexu joera, sindikatuei eta sindikatuen erabakiei atxikitzea edo ez atxikitzea,

enpresako beste langile batzuekin ahaidetasun lotura izatea edo hizkuntza dela-eta diskriminazioa eragiten dutenak.

c) Enpresak bere kasa hartzen dituen erabakiak, langileei kalte eginez, baldin eta erabaki horiek tratu berdintasunaren eta diskriminazio ezaren printzipioa bete dadila galdatzeko enpresan egindako erreklamazio baten aurrean edo administrazio-ekintza zein ekintza judizial baten aurrean erreakzioz hartuak badira.

d) Enpresak langileekin pentsioak direla-eta hartutako konpromisoak ez betetzea pentsio-planak eta pentsio-funtsak arautzen dituen araudian ezarritako moduan.

e) Lan arriskuen prebentziorako araudia bete gabe egiten diren lanak berehala ez geldiaraztea edo geldieran ez uztea, Lan eta Gizarte Segurantzako ikuskatzailetzak errekerimendua egin duenean, eta lan horiek, ikuskatzailetzaren iritziz, langileen segurtasunerako eta osasunerako hurbil-hurbileko arrisku larria dakartenean berekin, edo lanei berriz ekitea geldiarazteko arrazoiak aurrez zuzendu gabe.

f) Langileak euren ezaugarri pertsonal ezagunekin bateraezinak diren lanpostuetara atxikitzea, bai eta langile horiek laneko segurtasun eta osasunaren alorrean dituzten lanbide gaitasunak kontuan izan gabe lanean jardutea, egoera horiek langileen segurtasunerako eta osasunerako hurbil-hurbileko arrisku larria eragiten dutenean.

g) Prebentzio-baliabideen presentzia eza, legez nahitaezkoa denean, edo haien presentziak dakartzan betebeharrak ez betetzea, dagokion araudian arriskutsutzat edo arrisku berezikotzat jotako jarduerak direnean.

h) Honako alderdi hauek ez egiaztatzea dagokion araudiak ezarritako moduan: enpresa azpikontratatuek zuzendaritzan nahiz produkzioan lan arriskuen prebentzioko prestakuntza duten langileak badituztela, prebentzio-antolamendu egokia badutela, eta dagokion erregistroan inskribatuta daudela.

i) Laneko arriskuen prebentzioari buruzko araudia betetzean lan-baldintzei aplika dakiekeen beste edozein neurri hartu ez izana, baldin eta horien ondorioz langileen segurtasunerako eta osasunerako arrisku hurbil-hurbileko eta larria eragiten bada.

j) Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak kontzeptu guztiengatik biltzen dituen kuotak ez ordaintzea, dagokion epean eta moduan, kotizazio-agiriak ez direnean aurkeztu.

k) Kotizazio-agirietan edo bestelako agirietan datu faltsuak edo okerrak deklaratzea edo agerraraztea iruzur eginez, betiere kuotetan eragina badute.

l) Lana ematea kontratuak esekita edo lanaldia murriztua duten langileei, kontratua esekita dauden bitartean edo lan-agintaritzari edo langabezia-prestazioak kudeatzen dituen entitateari jakinarazitako lanaldi murriztutik kanpo.

m) Langileei deskontatutako Gizarte Segurantzako kuota zatia epean ez ordaintzea eta harekin geratzea, edo legez dagokiona baino deskontu handiagoa egitea.

n) Astuntzat sailkatutako exekuzio-baldintza berezien ez-betetzeak 15 laneguneko epean ez zuzentzea edo bideratzea.

o) Hirugarren ez-betetze astuna.

Ez-betetzeek honako isun edo zehapen ekonomiko hauek ezartzea dakarte:

a) Arintzat sailkatutako ez-betetzei 200 euroko isuna ezarriko zaie edo kontratuaren adjudikazio-zenbatekoaren % 0,1 (BEZik gabe) bigarren era horretan kalkulatuta ateratzen dena aurrena baino handiagoa bada.

b) Astuntzat sailkatutako ez-betetzei 1.000 euroko isuna ezarriko zaie edo kontratuaren adjudikazio-zenbatekoaren % 1 (BEZik gabe) bigarren era horretan kalkulatuta ateratzen den isuna lehenengoa baino handiagoa bada.

c) Oso astuntzat sailkatutako ez-betetzei 5.000 euroko isuna ezarriko zaie edo kontratuaren adjudikazio-zenbatekoaren % 3 (BEZik gabe) bigarren era horretan kalkulatuta ateratzen den isuna lehenengoa baino handiagoa bada.

KONTRATUA BETETZEKO BALDINTZA BEREZIAK AZPIKONTRATAZIOAREN ALORREAN.

Enpresa kontratistak justifikatu ahal izan beharko du, enpresa azpikontratatuei bidezkoak diren datuak eskatu ondoren, enpresa horiek ere obrak egitean bete egiten dituztela indarrean dauden legezko, erregelamenduzko eta hitzarmenezko hainbat xedapen, betiere lan-arloan, Gizarte Segurantzaren arloan eta laneko segurtasunaren eta osasunaren arloan aplikatzekoak badira.

Ez-betetze arinak izango dira hauek:

a) Obran eskura ez izatea Azpikontratazio Liburua, eraikuntzaren sektorean azpikontratazioa arautzen duten araudiak eskatzen duen agiria.

b) Enpresa kontratistak ez egiaztatzea enpresa azpikontratistak darabilen makinaria erabiltzeko titulua edo dokumentazioa duela, ezta indarrean daude lege-xedapenek galdatzen duten informazioa ere.

c) Segurtasunaren eta osasunaren koordinazio-lana egiten duen pertsonari ez komunikatzea Azpikontratazio Liburuan idatzitako azpikontratazioa.

Ez-betetze astunak izango dira:

a) Eraikuntza sektoreko azpikontratazioa arautzen duen Legeak eskatzen duen Azpikontratazio Liburua ez izatea, edo behar den bezala eta egunean ez edukitzea, hau da, legeak ezarritako eran ez izatea.

b) Ez egiaztatzea enpresa azpikontratatuek badituztela, bai zuzendaritzan, bai produkzioan, laneko arriskuen prebentzio arloan prestatuta dauden langileak, edota badutela prebentzio antolaketa egokia.

c) Oro har, kontratua betetzen den bitartean ez egiaztatzea enpresa azpikontratatuek betetzen dutela azpikontratazioari buruzko klausula, baldin eta ez-betetzeak ez badira ez-betetze arin edo oso astuntzat jo.

d) Kontratua betetzean, legez ezarritako mugak gainditzen dituen azpikontratista edo langile autonomo kopurua jardutea obran obra-zuzendaritzaren berariazko baimena izan gabe, baldin eta ez-betetzea oso astuntzat jo ez bada.

e) Langileen ordezkariei egindako azpikontratazioak ez jakinaraztea.

f) Hirugarren ez-betetze arina.

Ez-betetze oso astunak izango dira:

a) Kontratua betetzean, legez ezarritako mugak gainditzen dituen azpikontratista edo langile autonomo kopurua jardutea obran obra-zuzendaritzaren berariazko baimena izan gabe, baldin eta arriskuei buruzko araudiak lan horiek arrisku bereziak dituzten lantzat jotzen badituzte.

b) Langileen lagapena egitea indarrean dagoen legedia urratuz.

c) Kontratuaren zati bat kontratatzea ordenamendu juridikoaren arabera kontratatzeko ezgaitua dagoen pertsona batekin edo Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 71 artikuluko egoeratako batean dagoen pertsona batekin.

d) Ez egiaztatzea enpresa azpikontratistak kontratu mugagabearekin izan behar duen gutxieneko langile-portzentajea baduela, betiere eraikuntza sektorean azpikontratazioa arautzen duen araudiarekin bat.

e) Astuntzat sailkatutako exekuzio-baldintza berezien ez-betetzeak 15 laneguneko epean ez zuzentzea edo bideratzea.

f) Hirugarren ez-betetze astuna.

Ez-betetzeek honako isun edo zehapen ekonomiko hauek ezartzea dakarte:

a) Arintzat sailkatutako ez-betetzeak 200 euroko isuna ezarriko zaie edo kontratuaren adjudikazio-zenbatekoaren % 0,1 (BEZik gabe) bigarren era horretan kalkulatuta ateratzen dena aurrena baino handiagoa bada.

b) Astuntzat sailkatutako ez-betetzeak 1.000 euroko isuna ezarriko zaie edo kontratuaren adjudikazio-zenbatekoaren % 1 (BEZik gabe) bigarren era horretan kalkulatuta ateratzen den isuna lehenengoa baino handiagoa bada.

c) Oso astuntzat sailkatutako ez-betetzeak 5.000 euroko isuna ezarriko zaie edo kontratuaren adjudikazio-zenbatekoaren % 3 (BEZik gabe) bigarren era horretan kalkulatuta ateratzen den isuna lehenengoa baino handiagoa bada.

KONTRATUA EGITEKO BESTE BALDINTZA BEREZI BATZUK.

Kontratua betetzeko baldintza bereziak Hondakin Kudeaketan:

Kontratua betetzeko dagoen aldi osoan enpresa kontratistak bete egin beharko ditu hondakin-kudeaketaren berariazko preskripzio teknikoak, aplikatzeko araudian aurreikusitako betebehar hauek: hondakin-kudeaketako plana idaztea; hondakinak biltzeko eta obran aldi baterako uzteko hartutako neurriak; obran higiene- eta segurtasun-baldintza egokietan mantentzea; produktu toxiko edo arriskutsuekin kutsadura ekiditea obran, eta baimendutako kudeatzaile baten esku uztea, hondakinak haren eskuetan utzi direla fede ematen duen agiria administrazioari entregatuz.

Ez-betetzeak 200 euroko isuna ezarriko zaie edo kontratuaren adjudikazio-zenbatekoaren % 0,1 (BEZik gabe) bigarren era horretan kalkulatuta ateratzen den isuna lehenengoa baino handiagoa bada. Gainera, ez-betetzea ez bada zuzendu 15 laneguneko epean, atzera ere 1.000 euroko isuna ezarriko da edo kontratuaren adjudikazio-zenbatekoaren % 1 (BEZik gabe) bigarren era horretan kalkulatuta ateratzen den isuna lehenengoa baino handiagoa bada. Beste 15 laneguneko epea eman eta horrela ere ez bada zuzentzen ez-betetzea, oinarrizko betebehar bat ez-betetzat joko da.

Kontratua betetzeko hizkuntza-baldintzak:

1.- Kontratuak Euskal Autonomia Estatutuaren 5. artikuluak ezarritako hizkuntza-

ofizialtasun bikoitzaren araubidea eta Euskararen Erabilera Normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legea bete behar ditu.
2.- Adjudikaziodunak bi hizkuntza ofizialetan aurkeztuko ditu kontratuaren xede diren azterlanak, txostenak, proiektuak eta bestelako lanak, softwareen testu- eta soinu-interfazeak barne.
3.- Diseinu eta jarduera guztien plangintza elebiduna egin behar da; hau da, euskaraz eta gaztelaniaz aurkeztuko dira, aurreikusitako egintzaren eta hartzaileen arabera euskarari lehentasuna ematen zaion kasuetan izan ezik.
4.-Euskararen erabilera bermatuko da idatzi, argitalpen, seinale, oharpen, komunikazio eta, oro har, elkarrizketetan.
5.- Kontratua gauzatzean hirugarrenekin edo herritarrekin harremanetan egon behar denean, erabiltzaileak edo, hala badagokio, hirugarren batek erabakiko du kontratua gauzatzeaz arduratuko den enpresak zer hizkuntza erabiliko duen ahozko zein idatzizko komunikaziorako. Espresuki ezer jasota ez badago, enpresa adjudikaziodunak bi hizkuntza ofizialak erabiliko ditu pertsona fisikoei zein juridikoei jakinarazpenak egiteko; dena dela, herritarrak edozein unetan eska dezake hizkuntza ofizial bakarra erabiltzeko.

Errotuluak, oharrak, seinaleak eta gainerako komunikazio orokorrak piktograma bidez egingo dira, eta ondoan euskarazko azalpen-mezua izango dute. Piktograma baten bidez ematerik ez badago, euskaraz egingo dira mezuak ezagunak eta ulergarriak direnean. Aurreko bi kasuak ezinezkoak direnean, ele bietan egingo dira, euskarari lehentasuna emanez, betiere Administrazioarekin aldez aurretik adostuta.

Ez-betetzeak 200 euroko isuna ezarriko zaie edo kontratuaren adjudikazio-zenbatekoaren % 0,1 (BEZik gabe) bigarren era horretan kalkulatuta ateratzen den isuna lehenengoa baino handiagoa bada. Gainera, ez-betetzea ez bada zuzendu 15 laneguneko epean, atzera ere 1.000 euroko isuna ezarriko da edo kontratuaren adjudikazio-zenbatekoaren % 1 (BEZik gabe) bigarren era horretan kalkulatuta ateratzen den isuna lehenengoa baino handiagoa bada. Beste 15 laneguneko epea eman eta horrela ere ez bada zuzentzen ez-betetzea, oinarrizko betebehar bat ez-betetzat joko da.

Emakumeen eta gizonen berdintasunerako baldintzak

1.- *Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirako* martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoa betez, enpresa adjudikaziodunak kontratua gauzatzean emakumeen eta gizonen berdintasuna bermatzeko neurriak ezarri behar ditu, arlo hauetan: enplegua, sailkapen pertsonala, sustapena, iraupena, prestakuntza, ordainsariak, laneko egonkortasuna eta kalitatea, lanaldiaren antolamendua eta iraupena eta kontratuari atxikitako langileen lana eta bizitza pertsonala eta familiarra bateratzeko neurriak.
2.- Enpresa adjudikaziodunak hizkuntzaren erabilera ez-sexista bermatu behar du kontratua gauzatzean sortutako dokumentu, publizitate, irudi eta materialetan, eta emakumeen irudi diskriminatzailea edo sexu-estereotipoak ekiditearekin batera berdintasuna, oreka, aniztasuna, erantzukidetasuna, rol anitzak eta genero-identitatea sustatu behar ditu.
3.- Enpresa edo erakunde adjudikaziodunak bermatuko du lantokian sexu-jazarpena eta sexuan oinarritutako jazarpena prebenitzeko neurriak hartu dituela, baldin eta kontratua gauzatzeko hamar langile baino gehiago behar badira.

Lan-baldintzak ez kaltetzeko baldintza bereziak:

Kontratua betetzeko aldi osoan zehar, enpresa kontratistak bere burua derrigortua du — eskaintza aurkezteko unean aplikatu daitekeen lan-hitzarmenaren arabera, edo, hala balitz kasua, lan-hitzarmena hobetzeko enpresaren eta langileen artean izenpetutako itunen

arabera— egindako kontratuari atxikitako beharginei une bakoitzean dagozkien lan-baldintzak –lanaldia, soldata, eta urtekoan egokituak- bere kabuz eta aldebakartasunez ez murriztera. Horretan, salbuespen bakarra, enpresaren eta langileen ordezkarien arteko akordio espliziturен bat izatea izango litzateke.

Kontratua betetzeko baldintza berezi hori beteko ez balitz, zehapena ezarriko da, eta honela kalkulatuko da zehapen horren zenbatekoa: kontratuari atxiki zaizkion beharginen lan-hitzarmenak duen orduko/soldata hori murriztu edo kendu zaionaren portzentaje hori berbera kontratuaren aurrekontuari aplikatuta, muga % 10 izanik. Orduko/soldata murrizketa hori % 10etik gorakoa balitz kontratuaren funtsezko obligazio bat ez betetzat joko litzateke eta kontratua mozteko arrazoietako bat izango litzateke.

Kontratistak bete behar dituen agiriei buruzko baldintzak.

Kontratistak derrigorrean aurkeztu behar du Udalean hark eskatzen dion informazio guztia klausula honetan kontratua betetzeko ezarritako baldintza bereziak betetzeari dagokionez. Eskatutako dokumentazioa aurkezteko epea 10 laneguneko izango da horretarako egingo den errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik aurrera zenbatuta.

Ez-betetzeei 1.000 euroko isuna ezarriko zaie edo kontratuaren adjudikazio-zenbatekoaren % 0,1 (BEZik gabe) bigarren era horretan kalkulatuta ateratzen den isuna lehenengoa baino handiagoa bada. Beste 15 laneguneko epea eman eta horrela ere ez bada zuzentzen ez-betetzea, oinarrizko betebehar bat ez-betetzat joko da.

PROZEDURA

Enpresa kontratatzaile batek urraketaren bat egin duelako susmoa badago, eta hori frogatzeko Laneko eta gizarte-segurantzako ikuskatzailetzaren (LGSI) esku-hartzea behar bada, kontratazio-organoak egoeraren berri emango dio LGSIri, betiere kontratuaren zuzendariak horretarako eskaria aurrez egin badu; horrela, laneko arau-hausterik dagoen egiaztatuko da.

Urraketa egon dela bi modutan berretsi ahal izango da, LGSIk ikuskaritza egin eta laneko zehapena ezartzen badio enpresari edo epai judizial bat eman eta irmo egiten bada.

Gainerako urraketen kasuetan, Laneko eta gizarte-segurantzako ikuskatzailetzaren egiaztapenik behar ez denetan, kontratuaren zuzendariak eskatu beharko du espedientea zabaltzea.

Edozein kasutan ere, espedientearen ebazpena eman aurretik, entzun egingo zaio enpresa kontratistari.

Zigorrak betetzeko, kontratistari egin behar zaizkion ordainketa zatikatuetatik edo osotik egoki den kopurua kendu egingo da. Egindako lanaren egiaztatze gisa egiten diren ordainketetatik ezin bada zehapen-kopurua kendu, berme-kopurutik kenduko da, halakorik balego.

Gainera, atal honetan azaltzen diren betebeharrak asetzeko egin beharreko gastuak adjudikaziodunaren kontu izango dira eta eskainitako kontratuaren burutze-prezioan sartuta egongo dira.

26. Kontratuaren betetze akastuna.

a) Kontratua egiteko epe osoa ez betetzea kontratistari egotz dakiokeen arrazoiren bat tarteko.

Horrelako kasuetan, ondoko zehapen hauek ezarriko dira:

- Kontratuaren adjudikazio-zenbatekoaren % 1a (BEZik gabe), proposatutako epearen % 10etik beherako atzerapenengatik.

- Kontratuaren adjudikazio-zenbatekoaren % 3 (BEZik gabe), proposatutako epearen % 25etik beherako atzerapenengatik eta hasierako epearen % 10etik gorako atzerapenengatik.

- Kontratuaren adjudikazio-zenbatekoaren % 5 (BEZik gabe), proposatutako epearen % 50etik beherako atzerapenengatik eta hasierako epearen % 25etik gorako atzerapenengatik.

- Kontratuaren adjudikazio-zenbatekoaren % 8 (BEZik gabe), hasierako epearen % 75etik beherako atzerapenengatik eta hasierako epearen % 50etik gorako atzerapenengatik.

- Kontratuaren adjudikazio-zenbatekoaren % 10 (BEZik gabe), hasierako epearen % 75etik gorako atzerapenengatik.

Atzerapen egunak honela zehaztuko dira: kontratuaren hasierako epearen –horri, Udalak onartu dituen luzapenak gehituko zaizkio- eta obra benetan amaitu den egunaren artean dagoen aldea, kontratuaren amaiera eguntzat obraren harrera-aktaren eguna hartuta. Obren onarpenaren eguna edo data finkatu ahal izateko, kontratistak hamabost egun lehenago komunikatu behar du obra amaitzeko aurreikusitako eguna.

b) Obra egiteko proiektuaren betekizun teknikoak ez betetzea kontratistari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik, betiere kontratua suntsitzeko arrazoi ez badira.

Arau orokor legez, zehapenen zenbatekoa kontratuak duen aurrekontuaren % 1ekoa izango da, kontratazio-organoari, arrazoituta, ez-betetze hori larria edo oso larria dela irizten bazaio. Kasu horretan, hurrenez hurren, aurrekontuaren % 5erainokoa edo % 10erainokoa izan daitezke zehapenak. Ez-betetzeak behin baino gehiagotan egitea izango da astuntasuna baloratzeko unean kontuan hartuko den arrazoietako bat.

c) Kontratuaren adjudikazio-irizpideak betetzeke uztea kontratistari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik, betiere kontratua desegiteko arrazoi edo sorburu ez badira.

Arau orokor legez, zehapenen zenbatekoa kontratuak duen aurrekontuaren % 1ekoa izango da, kontratazio-organoari, arrazoituta, ez-betetze hori larria edo oso larria dela irizten bazaio. Kasu horretan, hurrenez hurren, aurrekontuaren % 5erainokoa edo % 10erainokoa izan daitezke zehapenak. Ez-betetzeak behin baino gehiagotan egitea izango da larritasuna baloratzeko unean kontuan har daitekeen arrazoietako bat.

27. Atzerapena kontratua betetzean.

Baldin eta kontratista, berari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik, berandutzean erortzen bada, bai guztizko epearekiko, bai ezarritako zatikako epeekiko, 9/2017 Kontratuen legearen 193 artikuluan xedatutakoa aplikatuko da.

28. Funtsezko obligazioak.

Funtsezko obligaziotzat hartuko da:

a) Astuntzat sailkatutako exekuzio-baldintza berezien ez-betetzeak 15 laneguneko epean ez zuzentzea edo bideratzea.

b) Baldintza-orrietan halakotzat hartzen direnak.

29. Azpikontratazioa.

Azpikontratazioa: Obra hau egiteko baimenduko den azpikontratazioaren gehieneko

portzentajea % 50 da.

Azpikontratazioa arautuko dute 9/2017 Kontratuen legearen 215 eta 217 artikuluak nahiz eraikuntza sektorean azpikontratazioa arautzen duen urriaren 18ko 32/2006 Legeak ezarritakoa.

Edozein azpikontratu egin aurretik adjudikaziodunak derrigorrean aurkeztu behar du honako dokumentazio hau Irurako Udaletxean:

a) Egin nahi duen azpi-kontratu bakoitzean, azpikontratuz egin nahi duen prestazio-zati bakoitza adierazi beharko du, baita haren aurrekontua ere; azpikontratistaren nortasuna edo identitatea azaldu behar da kontratua burutzeko duen gaitasuna nahikoa dela justifikatuta, azpikontratista horrek dituen elementu teknikoak eta giza elementuak azalduta eta horien esperientzia nolakoa den adierazita. Azpikontratugileak, azpikontratu horren xede den kontratuaren zati hori egiteko behar den sailkapena badu eta hala dela egiaztatu, orduan, kontratista nagusiak ez luke azpikontratuaren gaitasuna justifikatzeko premiarik izango.

b) Azpikontratatu den enpresak Enpresa Kontratisten eta Azpikontratisten Erregistroan duen inskripzioari buruzko ziurtagiria.

c) Adierazpena, azpikontratugileak izenpetutakoa, SEKTORE PUBLIKOKO KONTRATUEN LEGEKO 71. artikuluak kontratatzeko zerrendatzen dituen debeku horietako batean ere ez dagoela sartuta esaten.

d) Azpikontratistak dituen zerga-betebeharretan eta Gizarte Segurantzarekin dituenetan egunean dagoela egiaztatzen duen ziurtagiria.

Kontratistak, 9/2017 Kontratuen legearen 215.2 artikuluak azpikontrataziorako ezartzen dituen baldintzak betetzen ez dituenean edo azpikontratuetarako ezarritako gehieneko muga berezia gainditzen duenean, 215.3 artikuluak arautzen duen zehapena ezarriko zaio honen arabera:

- Ordainketa oso gisa edo ordainketa partzial legez ordaindu behar zaizkion zenbatekoetatik kenduta ordainduko da zigorra edo zehapena, edo bermetik kenduta.

- Arau orokor legez, zehapenen zenbatekoa kontratuak duen aurrekontuaren % 5ekoa izango da, kontratazio-organoari, arrazoituta, ez-betetze hori larria edo oso larria dela irizten bazaio. Kasu horretan, eta hurrenez hurren, aurrekontuaren % 10erainokoak edo legeak ezarritako gehieneko % 50erainokoak izan daitezke zehapenok. Ez-betetzeak behin baino gehiagotan egitea izango da astuntasuna baloratzeko unean kontuan hartuko den arrazoietako bat.

30. Kontratuaren aldaketak.

Arlo honetan, 9/2017 Kontratuen legearen 242. Artikuluan ezarritakoa beteko da.

31. Obrak etetea.

Udalak obrak etetea erabakiko balu —"aldi baterako eten partziala", "aldi baterako eten osoa" edo "behin betiko etena"— Obrak Eteteko Akta jaso beharko luke, obraren zuzendari teknikoak eta kontratistak izenpetukoa. Akta horretan, etena sorrarazi duen akordioa jasoko da, eten hori sorrarazi duten arrazoiak edo inguruabarrak eta obra-egikaritzean dagoen egitezko egoera, etenaren eraginpeko obra-zatia edo obra osoa zein den zehaztuta.

32. Kontratua betetzea.

Kontratuaren onarpena, 9/2017 Legearen 243 artikuluak eta Administrazio Publikoetako

Kontratuen Legeko Erregelamendu Orokorraren 163. artikuluak eta horren ondorengoek ezarritakoak eraenduko du.

Onarpena ematerakoan, kontratistak ondoko obligazio hauek bete dituen egiaztatuko da:

a) Obren amaierako leku egitea, kontratistak, hasieran zeuden moduan utzi beharko ditu obrek eragindako aldeak edo lekuak, hain zuzen ere obrek okupatzen ez dutena.

b) Adjudikaziorako irizpideak betetzea.

c) Egikaritze-baldintzak betetzea.

33. Kontratua suntsitzea.

Kontratua suntsitzeko orduan, 9/2017 Legearen 211 artikulutik 213. artikulura bitartekoek ezarritakoak arautuko du, eta obra-kontratuetarako, zehazki, lege beraren 245. artikulutik 246. artikulura bitartekoek; baita Administrazio Publikoetako Kontratuen Legeko Erregelamendu Orokorraren 109. artikulutik 113. artikulura bitartekoek eta 172. artikuluak ere.

Kontratua, adjudikaziodunari egotz dakiokeen kausaren batengatik suntsiaraziko balitz, hari, behin-betiko bermea bahituko zaio; Administraziori egindako kalte-galerak bahitu den bermearen kopuru horretatik gorakoak balira, hortik etor liezazkiokeen kalte-ordainak eragotzi gabe.

Izaera orokorraz ezarritakoez gain, ondoko hauek izango dira kontratua mozteko kontratistari egotz dakizkiokeen arrazoiak:

a) Ez betetzea funtsezko obligazioak.

b) Lizitatzaileek aurkeztutako obra-plangintzan obra egikaritzeko islatutako epe partzialetan bi hilabetetik gorako atzerapena izateak Udalari eskumena ematen dio kontratua suntsitzeko.

c) Kontratua akatsez betetzeagatik ezarri diren zehapenak kontratuaren adjudikazio-zenbatekoaren % 10era iristen direnean (BEZik gabe).

34. Berme-epea:

Berme-epea urtebetekoa izango da, eta obraren onarpen egunetik aurrera hasiko da zenbatzen. Hala ere, lizitatzaileek berme-epe hori luza dezakete beren eskaintzetan.

Epe horren barruan, Administrazio Publikoen Kontratuen Legeko Erregelamendu Orokorraren 167. artikuluak ezarritakoa aplikatuko da kontratistaren obligazioei dagokienez, baita Administrazioak duen ahalmenean ere, hau da: bete ezean, obrari eusteko egin behar diren lanak kontratistaren kontura egitekoa.

Berme-aldian obrak zaintzeko sortzen diren gastu guztiak kontratistaren kargu geratuko dira eta, kontzeptu horregatik, ez du izango inongo kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik. Obran, halabeharrez, sortu edo izan diren kalteak hortik kanpo geratzen dira; kalte horiek udalak hartuko ditu bere gain. Hala ere, udalak, kontratistari konponketa-obrak egin ditzan exijitzeko ahalmena izango du.

35. Likidazioa.

Aurreko klausula horrek aipatzen duen berme-aldia edo epea igaro ondoren, kontratuaren likidazioa egingo da Administrazio Publikoetako Kontratuei buruzko Legearen Erregelamendu Orokorreko 179. artikuluak dioenaren arabera.

36. Administrazioaren eskumenak eta jurisdikzio eskuduna.

Kontratazio-organoak eskumena du administrazio-kontratua interpretatzeko, hura betetzeak dauzkan zalantzak ebazteko, kontratua interes publikoarengatik aldatzeko, hura desegitea erabakitzeko eta kontratua mozteak edo desegiteak ekar ditzakeen ondorioak zehazteko, Sektore Publikoko Kontratuen Legeko Testu Bateratuan ezarritako betebeharrak eta ondorioak kontuan hartuta eta horren mugen barruan.

Kontratatzeko organo eskudunak ebatziko ditu administrazio-kontratuen interpretazio, aldaketa, desegite eta ondorioei buruz sortzen diren auziak, eta haren erabakiek bide administratiboa amaiaraziko dute; ebazpen horien aurka, aukeran, berraztertze-errekurtsoa ipini ahal izango da hilabeteko epean organo beraren aurrean, edota administrazioarekiko auzi-errekurtsoa bi hilabeteko epean, hura jakinarazi edo argitaratzen den biharamunetik aurrera zenbatuta.

Iruran, 2022ko ekainaren 6an.

Irurako udala

ANEXO I

PROPUESTA

D/DÑA. ..... con domicilio en ....., calle ....., C.P. ..... y provisto del D.N.I. nº ....., Tfno: ……..... en plena posesión de su capacidad jurídica y de obrar, en nombre propio o en representación de la empresa ....., con domicilio en ....., calle ..... C.P. …..... C.I.F. ..... y Tfno. ..... enterado del procedimiento convocado por el Ayuntamiento de Irura para la contratación de .....……
E-mail:

DECLARO

I. Que me comprometo a su ejecución por la cifra total, IVA incluido de ……..... …. ……..……euros (d*ebe expresarse en letra*), según el siguiente desglose:

Importe neto…… €
IVA (21 %)……. _____€
TOTAL……...

II.- Que oferto una ampliación del plazo de garantía de _____ años.

III. Que igualmente conozco el Proyecto, con su contenido, al que se presta conformidad a expensas de la comprobación del replanteo, el Pliego de Cláusulas Administrativas Particulares y demás documentación que debe regir el presente contrato, que expresamente asumo y acato en su totalidad.

En ....., a ..... de ..... de 20..

Fdo.:
D.N.I.:

Irurako udala

I. ERANSKINA

PROPOSAMENA

..JAUNAK/ANDREAK ..... bizi denak.....kalean..... PKn, eta .....zk.ko NANa duenak eta ondoko telefono hau:..... ..... bizi denak.....kalean..... PKn, eta .....zk.ko NANa duenak eta ondoko telefono hau:..... gaitasun juridiko eta jarduteko gaitasun osoarekin, bere izenean, edo ..... enpresaren izenean (helbidea:.....kalea:.....) eta haren ordezkari legez. PK. ..... IFZ. ....Jakitun dago, Irurako Udalak,.....kontratua egiteko egin duen deialdirako prozeduraz……..……
……

Mail:

HONAKO HAU AITORTZEN DUT:

I. Kontratu hori burutzeko hitza ematen dudala, prezio honetan (BEZa barne).....: ……..... EURO (zenbatekoa letraz idatzi)

Hona hemen desglosea:

Zenbateko garbia:..... €

% 21 BEZa..... _____€

GUZTIRA

II. Berme-epea _____ urtean luzatzeko eskaintza egiten dut.

III. Orobat deklaratzen dut ezagutzen dudala Proiektua eta horren edukia eta, zuinketa-egiaztatzearen menpe, baietza ematen diodala; ezagutzen dudala baita administrazio-klausula berezien baldintza-plegua eta kontratu hau arautu behar duen gainerako dokumentazio guztia, horiek denak neure egin eta berariaz onartzen ditudanak.

Lekua:.....; eguna: .....; hilabetea:.....; urtea:.....Sinatua: